

René Lafon irakasle jaunak, euskaraz honek ere, Joanes Leizarraga itzulari eta idazkarj bezala agertzen digu; errege-bideko euskara hura, Lapurdi-Baxenabarren oinharriturik, euskalki orotarik baliaturik egina zuela, eta bere lehen lanetatik azkenekoetara agertzen den eboluzioko xehetasun batzuk adierazten ditu.

Hitzaldiak finitzean herriko-etxeak ahamena eskaini du biltzarki-dezentzat.

Bazkaria, Beskoitzeko Salingo jatetxe batean. Bazkalondoan, Haritschelhar jaunak irakurri du Montzon eta Alvarez Enparantza laguntzaileen agurrezko gutuna. Villasante euskaltzaniburuak, EUSKERA aldizkariaren batzordekoen gogoia agertu du, aldizkari honetan Leizarragaren *Testamentu Berria* argitaratzeko, egun Akesolo, Lafitte eta Lafon jaunak eman dituzten hitzaldiak hitzaurre bezala jarririk; nahiz ortografia berrian jarria edo nahiz lehen argitalpena orriz-orri fotokopiatuak, zen bezala. Oso pozik entzun da berri hau.

Lafitte jaunak agertzen du, inglesak argitaratzeko gertu daudela, baina guk hemen 5.000 ale saldu ahal izateko bidea egingo bagendu. Baina, hainbeste lortzea nekeza denez, guk gure aldetik egin beharko dugula argitalpena.

Bazkalondoko solasaren bukaeran Arrue jaun euskaltzaina mintzaten da, mugaz alde batekoen izenean bestaldekoiei anaitasuna agertuaz eta elkartasunean irauntzea eskatuaz.

Solas horietan elkar ezagutzen ez ziren anitzek izan dute kontaktu personala egiteko aukera, eta egintza asmoz beteriko elkarrizketak girotu zuten Beskoitzeko egunaren bukaera.

*Euskaltzainburua*

LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*

JUAN SAN MARTIN

1971-VIII-4

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971eko abuztuaren 4an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buruordezko, Aita Damaso Intzakoa, Irigoyen, Lafitte, Lojendio eta Mitxelena euskaltzain jaunak; eta Akesolo, Altuna, Aresti, S. Basauri, Beobide, Berriatua, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Epherre, Erkiaga, Irigaray, Larzabal eta Zabala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Maiatzeko agiria onhartzen da. Baina agiri hau onhartzean, Irigoyen jaunak argitasun batzuk eskatzen ditu Caja Laboral Popular-ek emandako 50.000 pezetak eralgitzeaz, maiatzeko agirian esaten denez: "Diru hau zernahitarako subentzio bezala ematen digute, batez ere gure biblioteka eraberritzeko", eta ia posible dan bibliotekara zenbat emango dan jakitea. Ekonomia aldetik hain urri gabiltzanez gero, ez dala posi-

ble zenbat eman ahal izango dan, eta oraingoz behar-beharrezko pre-mietarako uztea hobe dala.

Bestalde, Irigoyen berak, puntuazioari buruz ohar hau egiten du: ia ordinaletan-garren bereiztu gabe jartzea zer egin behar den numeru erromanoetan I.Lgarren datorrenean (ilgarren irakurteko arriskoa due-nez gero). Holako kaso soil batzuk direnean marratxo batekin edo puntu hutsarekin bereiztu ezinik ez dala esan da, puntu horren erre-gela hain estu hartu behar ez denez.

a) *Har-emanak*: Irigoyen jaunak bere lanen bi separata eskain-tzen ditu Euskaltzaindiaren liburutegirako: *Estudio de un texto arcaico del vizcaino antiguo* eta *Estudio lingüístico de una carta del s. XV en vascuence y en romance navarro*, bigarren hau R. Ciérvide-ren lagun-tzarekin egina. Juan Garmendia "Zeletak" bere *Euskeraren iraupena eta Euskal-literaturaren aurrerapena* liburuxkaren ale batzuk.

Pensylvania-ko Elizabethtown College-ko Modern Languages-en irakasle den Carlos M. Graupera-ren gutuna euskaraz idatzitako lanen batzun eskaria eginez, berak eskuartean erabili behar izaten dituen ma-terialeterako, eta euskara zenbat hitzez osatzen den galdetzen du.

E. L. E., Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartearen gutuna aurtengo "Andima Ibiñagabeitia Saria"ren berri emanez, berakin batean sarira-ko deia eta araudia. Aurtengo gaia: "Euskal Ikastoletako Textoak" izango da.

Deustuko Unibersidadeko Euskal Kulturaren Mintegiaren gutuna, esanez, datorren irailetik asignatura bezala jartzen dala euskara eta irakasleak hautatu beharra dagoela. Lehendik irakasle bezala esperien-tzia dutenen artean eta irakasletarako esaminetatik igarotzeko gertu daudenen artean, irakasle karneta zeintzuri banandu. Beren Mintegia-ren bidez, Deustun euskerazko irakaslea izateko ofizialki eskatuko du-teia Euskaltzaindiaren karneta edukitzea. Idazkariak aditzera ematen du, Mintegiaren zuzendaria berakin personalki mintzatu dala gai honi buruz, eta, hitzez, honetan geldituak direla: a) lehendik irakasle ari direnak *curriculum vitae* idazkiz gertatu; b) gainerakoak, oraindik has-tea nahi dutenak, Altunak hil honetan Bilbon bertan emango dituen kursilloetatik igaro eta esaminiatik pasatu. Lehendik ari izanarren eta *curriculum vitae* hori presentatuaren, hobe litzakeala hauek ere esa-minatik igaro. Hontaz luze mintzatu da, batez ere gauza hau aurrera eramateko arkitzen den premia gorria adieraziaz. Aita Altunak, Anaia Berriotxoaren laguntzaz, arazo hau aztertzea erabakitzen da, proie-tu txosten bat prestatuaz. Berebat, Kintana jaunak txosten bat ekarriko du, euskeraz irakasteko gaitasuna zer nolako azterketen bidez egizta diteken erakutsiz.

Aditzera ematen da, *Literaturari buruzko saiakera* sariketako lanak bialtzeko epea igaro dala, 3 lan hartu direla eta mahai-burua izendatu beharra dagoela; eta jaun horiek izendatzen dira: Jean Haritschelhar, Alfonso Irigoyen eta Gabriel Aresti.

Idazkari-ordeak, diru-zainaren izenean, 1971ko bigarren hiruhila-beteko diru kontu gora-beherak ematen ditu: zegoana, Bilbo eta Do-nostiakoak batora, 59.468,20 pezeta; gehitua, 154.788,90; urritua, 197.299,12; dagoana 16.957,98 pezeta; lerroz-lerro aipatzen dira zein diru-etxetan

zenbat aurkitzen den, eta azkenik gora-baheren zertzeladarik aipagarrienak.

b) *Idatz-arauen batzordeak prestatu duen txostena (II)*, "Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak": Hamar puntu presentatu ditu batzordeak, banan bana aztertuak izan dire eta, hirutan izan ezik, gainerako guztia ontzat hartu da. 5, 6 eta 7garren puntuak urrengo hobeto aztertzeko uzten dira eta ontzat hartuak hauek dira:

Euskeraz idaztean bada nahikoa zalantza eta istilu hitz eta hizki batzuekin. Hitz eta hizki hoietako batzuk, zenbaitetan, hurrengo edo aurreko hitzari loturik idazten dira, beste batzuetan bereiz, eta beste batzuetan, azkenik, marratxo batez aurreko edo atzeko hitzari elkar-turik.

Hona hemen maizenik gertatzen diren kasuak: 1. Hitz elkarteak; 2. "Gabe" atzizkia; 3. "Baitan", "Baitara", "Baitarik"... deklinazio kasuak; 4. "Arazi"/"Erazi", esanahi eragilea duen aditza; 5. "Ez" ezetza adierazteko hitza; 6. "Bait", aditz aurreko aurrizkia; 7. "Ba", baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia; 8. "Ta"/"Eta", aditz ondoko atzizkia; 9. Hitz eta aditz ondoko "Edo"; 10. Eta azkenik, duda sortzen duen beste zenbait itz: "Omen", "Ote", "Ahal", "Bide", "Ai", "Antza"...

Kasu bakoitzean gomendagarri dirudien jokabidea agertuko dugu:

1. *Hitz elkarteak*. Marratxoa jarri behar denekoak alde batera utziz (Ikus Lehen Erabakia), honako beste kasuok gogoratu behar dira:

a) Jatorriz hitz elkartua izanarren, osagarriak elkargana bildu baldin badira eta hitz sinplea bezala erabiltzen bada, orduan dena loturik jar bedi. Adibidez: "sagardo", "galbide", "amorrai", "erbiñude".

b) Hitz elkartuaren osagarriak osorik eta garbi ageri direnean, bereiz jartzea hobe. Adibidez: "hitz egin", "elkar hizketa".

d) Aurreko hitzak letraren bat galdu baldin bada, eta aurreko zein atzeko hitza laburra baldin bada, biak naturik idaztea hobe; bestela, berriz, bereiz, Adibidez: "Abendats", "arnasots", "elizgizon", "gizabide", "gizalan", "gizatalde", "itsasertz". Baina: "Anai maitasuna", "Arnas gaitzaldia", "Ekonomi arazoa", "Eliz Agintariak", "Filosofi saila", "Giza eskubideak", "Kultur gaiak", "Euskal kantari", "Literatur irakaskintza". Bi hots berdintsu elkartu behar direnean bereizturik ipintea.

2. "Gabe" atzizkia. Bereiz jar bedi. Gainerakoan, hala izan da ohitura. Adibidez: "Ez naiz egiteko gabe" (Ax 9). "Premia gabe" (Ax 262).

3. "Baitan", "Baitara" eta abar. Deklinazio kasuak loturik jartzen dira. "Baitan" sail honek, ordea, ezpezia egiten du. Sortaldeko euskalkietan "inesivo" kasua, pertsona izakjekin, "baita" horrekin egiten da gehienetan; eta hurrengoak "baitara", "baitarik"...; -gan, -gana, -gandik, eta abarren ordaina da. Adibidez: "Amarengan"/"Amaren" baitan". Sortaldekoek bereiz jarri dute beti *baita* delakoa. Hala izan da eta da ohitura, eta hala segitzeko erabakitzen da.

4. "Arazi"/"Erazi". Hitz. honekin gertatzen diren kasu bereziak kontutan hartuz, honako bide hauek proposatzen dira:

a) *Arazi*-ren aurretik dihoan aditza osorik dagoenean, orduan hobe da biak bereiz jartzea. Adibidez: "iraun arazi", "eman arazi".

b) Aurreko nahiz ondoko hitza mozturik baldin bada eta elkar-gana lotzeak idazkera aldaketarik sortzen ez baldin badu, loturik idatziko dira. Adibidez: “trabailarazi”, “obligarazi”, “adierazi”, “ezagutarazi”.

d) Biak lotzetik idazkera aldatzea segituko balitz, orduan hobe da bereiz idaztea. Adibidez: “sor arazi”, “har arazi”, “sar arazi”.

8. “*Ta*”, *aditz ondoko atzizkia*. Hiru kasu berezi behar dira:

a) *-ik* edo *-rik* atzizkiaren sentidu bera duenean. Adibidez: “Haserretuta” (= haserreturik). Orduan loturik idatzi behar da.

b) “*Bait*”en sentidua duenean. Adibidez: “Hau nere gorputza da ta” (edo *eta*) (= Hau nere gorputza bait da). Bigarren kasu honetan bereiz idatz bedi.

d) Oraindik bada beste hirugarren kasu bat: “*eta abar*”en ordez, “*ta*” edo “*eta*” soilki jartzea. Adibidez: “Pedro ta, joan ziren” (= Pedro eta abar, Pedro eta honen lagunak, Pedro eta gainerakoak esan nahi du). Hemen, “*ta*” horren ondoren koma jartzea gomendatzen da (coma, virgule).

9. *Hitz eta aditz ondoko “edo”*. Bai sortaldeko eta bai sartaldeko euskaldunen artean ere maiz gertatzen dira honelako esaldiak: “Joa-kinek edo, esango zuon hori”. “Entzun edo, zerbait egin du harek”. Kasu horretan ere, “*edo*” horren ondoan koma bat jartzea gomendatzen da.

10. *Aditz aurrean edo ondoan jartzen den beste zenbait hitz*: “*Ahal*”, “*Bide*”, “*Al*”, “*Omen*”-ek “*ba*” aurretik dutenean, bereiz hоек ere: “*Ba omen da*”, “*B aomen daki*”. “*Ba ote da inor?*”. “*Egin bide du*”. “*Etorri da antza*”.

d) *Aditz batuaren batzordearen berri*: Mitxelena jaunak adierazi du lehen urratsak zelan eman diren, punturik errazenak eta euskalki guziak berdintsu direnetatik. Hauek, geroago idatzita emango dira.

e) *Araudi berriztatzearen batzordearen berri*: Lojendio jaunak eman du egiten ari direnaren berri.

f) *Etxegintza hiztegiaren batzordearen berri*: Idazkariak adierazi du zer egoeratan den, apirileko agirian ematen zen berria, fitxak egi-teari buruz, eta oraindik hortan dela. Mitxelenak dio, Lizaso errederia-rra, Burgos-en aparajadore dena, gertu dala hontaz bere laguntza ema-teko eta lehendik zerbait egina ere ba duela. Laguntza hau ontzat har-tzen da.

g) *GAUR*-ekoek euskeraren egoerari buruzko estudioaren aurre-rapenaren berri: “Gaur”ekoek, bereri eskatutako lanaren aurrerapen bezala, *El euskera hoy* izenez, Elgoibarren, Errederian eta Pasaian egin duten estadistika lanaren kopia bana eman dizkiotela euskaltzain-bu-ruari eta berari, dio idazkariak, behar diren oharrak egiteko, gerora begira beren lanaren hobekuntzak lortu ahal izateko. Lan hau, Lur editorialak laster argitaratzeko du euskarara itzulia. Oso interesgarri-tzat azaltzen du idazkariak eta komeni dala liburua argitaratzean Eus-kaltzaindikoak behar bezala aztertzea eta lanaren hobekuntzak nondik lortu adieraztea. Oinharrizko lan hau ontzat ematen du, baina sarreran euskarari buruz ematen den aburu bat ez datorrela ongi Euskaltzain-diaren izatearekin, ez eta ere hizkuntzarentzat gehienok dugun aburua-



rekin. Zalantzak jartzeko besterik ez denez, Gaur, S. C. Lekoei frase hori kentzeko eskaria egitea erabaki da.

h) *Batzordeak dukartena*: Ruiz Urrestarazu jaunak, Arabako Aramaion irailaren 5-ean izango den batzar-idekiari buruzko xehetasunak eman ditu, maiatzeko agirian jartzen direnez gainera.

A. Zabalaren idazkitxo bat irakurri da bertsolari txapelketari buruz. Bertsolariekin elkar-hartze batera iritxi direla eta esperantzaz beterik ikusten duela, eta bertsolariarik gehienak parte hartuko dutela.

Euskaltzainburuak aditza ematen du, bihar bertan, Bilboko etxera etorriko zaigula Peter Zenarruzabeitia jauna, Idaho-ko Estaduko sekretarioa, euskalduna eta euskaltzalea. Ahal duenak bertara agertu bat egitea eskatzen du.

Irigoyenek, Bizkaian bertsolari txapelketak egiteko agintariegandik izan diren eragozpenak adierazten ditu. Eta jokabide hau aldatzen ez ba dute, ez dala posible izango txapelketa egitea.

Kintanak adierazten du, irakaskintzan ere ez dutela betetzen legeak berak diona, ikasleak autaturiko eginkizun orduetan, euskara hautatzea ere libre denez, honetarako eragozpenak jartzen dituela. Ministeriora ere idaztea esan da, baina uste da askozaz hobe izango dala Bizkaian bertan irakaskintzako batzarra hornitzen duten gizonen artean lana egitea, bitartekoz baliaturik, zeren bestela egiten diren idazkariak papelean paratuko direla.

Beobidek galdetzen du, ia zertan den aditz-batuaren sariketa. Aditz-baturako izendatu zen batzordo beraren esku utzi zen erabakitzea, baina ez da egin. Eta, orain, batzuk esaten dutenez, hobe da batzorde aparteko bat izendatzea. Hau ikusirik, batzorde beraren esku uzten da liuru personaz epai-mahia egitea. Baina urrengo batzarrerara erabakiren bat ekartzea komeni dala.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*

JUAN SAN MARTIN

1971-IX-5

Aramaion, 1971ko irailaren 5ean, goizeko hamaiketan herriko San Martin parrokian herri-meza Markiegi jaunak ofiziatuak Villasante, Diharce, Akesolo, Baztarrika, Tolosa eta Uribarren jaunen laguntzarekin. Meza ondorean, herriko plazan dantzak izan dira.

Eguerdiko hamabi terdietan, Udaletxeko Batzar Gelan, bilkura idekia. Mahaiburuko: Villasante euskaltzainburu jauna. Ehundik gora biltzarkide, eta beren arteko: Diharce "Iratzeder" e talrigoyen jaun euskaltzainak; Akesolo, Baztarrika, Berrojalbiz, Enbeita, Etxaniz, J. A. Etxebarria, Gandiaga, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Lizundia, Martin (Felix), Ruiz Urrestarazu, Santamaria eta Sarasola jaun euskaltzain-laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Aita Damaso Intzakoak, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena euskaltzainak, eta Manuel Aranegi Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais-ko buruak beren ezin etorria adierazi dute.